

## MONDRAGON UNIBERTSITATEAK Enpresa Zuzendaritzako Nazioarteko Ikastaroa jarriko du abian.

2015/07/21

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoak, lehen aldiz, Enpresa Zuzendaritzako Nazioarteko Ikastaro bat jarriko du abian irailean. 120 orduko aditu-programa bat da, eta 2016ko otsailean amaituko da. Beren negozio-ereduen gakoak ulertu eta honako sektore hauetan emaitzak lortzeko kudeaketa-estrategiak abian jarri nahi dituzten zuzendarientzat da: aeronautikan, automobilgintzan, ekipamendu-ondasunetan, I+Gn edo energiaren sektorean, besteak beste. Gainera, ikastaroak barne du astebeteko egonaldia San Frantziskoen eta Seattlen. Enpresa estatubatuarrak, hala nola Boeing, Intuitive Surgical edo Plethora, bisitatuko dituzte, jardunbide egokiak buruzko benetako adibideak ikusiz ikasteko.

Programak honako helburu hau du: parte-hartzaileek beren negozio-ereduen gakoak identifikatzea eta egungo eta etorkizuneko enpresa-testuinguruan lehiakortasuna handitzeko kudeaketa-estrategia berriak martxan jartzea.

Programak hiru fase ditu: Lehena, helburuak zehaztea; parte-hartzaileek beren erakundeetako hobekuntza-helburuak zehaztu beharko dituzte. Bigarrena, Estatu Batuetan prestakuntza jasotzea eta enpresak bisitatzea, erreferentziako kasuak ikusteko eta lehen fasean zehazturiko helburuak lortzeko ekintza-planak proposatzeko. Hirugarren fasean, berriz, parte-hartzaileek lehentasunezko ekintza-planak aukeratuko dituzte, eta beren enpresetan abian jarri. Horretarako, MONDRAGON UNIBERTSITATEKO aditu baten laguntza izango dute.

Irakasleen artean honako hauek izango dituzte txostengile gisa: Ron Lesniak (UC Berkeleyko irakaslea), Michael Baudin (Lean eta Smart Manufacturing gaietan aditua) eta Nick Pinston (Plethoraren sortzailea), besteak beste.

Izena emateko epea irailaren 9an amaituko da. Eman ezazu izena hemen.

